

 BOOKTEGI

azalaren azpian

GURUTZ URUBURU
IBARGUENGOITIA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

GURUTZ URUBURU

IBARGUENGOITIA

azalaren azpian

1)

Begiak itxi genituen

Une batez

Amestearen ordainetan,
Irekitzerakoan...
Soilik amestea geneukan.

2)

Itzali dira argiak,
Begiak itxi eta
Berriz egingo dugu topo,
Existitzen ez diren lurretan,
Hezur eta haragizko
Mugarik gabe.
Denbora,
orratzek
neurtzerik ez duten gunean,
inork izan denik ere ez dakien
sekretu hutsean...
Ez da izan.
Ez da eman.
Baina bada,
Gogoratzerik bada,
Ametsen ilunpeko
Argian.

3)

Soineko beltzez jantzi da eguna,
Joskurak itotzen dizkio
Garai haietako ametsak...
Haizea ere bada denbora
Ez duela bisitari,
Arantzak norabidez aldatu zaizkio
Odoleztatzen zaizkion une amaigabeetan...
Soineko beltzez jantzi du bere burua,
Berriz argirik ikusiko duen jakin ezinik...
Lurperatu ditu,
Itxaropen izpiak.

4)

Ez da hodeirik ageri,
Beste lekuren bat hautatuko zuten...

Edo, agian...
Izarren keinuak ulertu
Eta
Amesteko aukera eman diete,
Mugez haratago.

Izar iheskorrak ere pausatu dira,
Ihes egitearen nekeaz,
Amesteko aukeren eskean,
Besteen ametsez gogaituta.

Azken finean,
Izarrik amestea,
Izartuena
Baita.

5)

Hodeien hertzetatik
Kraskadak entzuten dira,
Hautsitako zati txikiak
Lurra joaz,
Konponketatan dabilta
Zeruan,
Bada esperantza...
sabaia konpondu ostean
Lurra konpondu
Denarena.

6)

Udaberria sartu zitzaizun
Azalean barna,
Eta ni,
Ohartu gabe...
Barne desirak loratu
Zaizkizu,
Non nengoen baina?
Agian...ezkutuan
Zenituen,
Garaia izan arte.

7)

Bide asko
Argitu genizkion elkarri,
Hotz ginean elkar berotuz
Neguko eguzki epela bagina lez,
Baina urtaroz aldatu gara,
Garaia iritsi da,
Izar txikiagoei begiratzeko,
Elkarri begira,
Itsu-itsuan erre orduko.

8)

Betiko orduan
Gelditu ginen arren,
Ez ginen
Ordukoak
Izatera iritsi.

9)

Isilik aldamenean,
Ezagunegia
Kontatzera nindoana,
Isilik,
Adi,
Zer ote litekeen datorrena.
Isilik aldamenean,
Ezagunegi kontatzera zindoazena,
Isil,
Adi,
Hitzei,
Noiz etorriko,
Zer dakarten,
Zer esanik ez,
Esan beharrik ere ez...
Hitzak soberan daudela
Isiltzen garenean
Eta
Hitzak falta zaizkigula
Hitz egin behar dugunean.

10)

Esan iezadazu,
Lur bereko sustraietan,
Esan,
Hazi bereko
Sustrai desberdinen
Sakontasunean,

Azalean loratzen zaizkigunak,
Geure desioen erreflexu
Direla.

Esan iezadazu!
Haizeak eramanak,
Itzulika dabiltzala,
Noiz lur hartuko.

Esaidazu!
Lurperatutako
Orbelen tantak
Garaia denean,
Omenduko dituztela
Loraldi berriek.

11)

Batzuetan,
Geltoki batera jaitsi
Eta gelditzeko gogoa
Sorrarazte zaizu,
Baina,
Berriz igo behar zara.
Ez baita zure geltokia.

12)

Asko ikusiak gara,
Maitea,
Begi berdinekin
Begiratzeko.

13)

Aurpegi berriak
Dakartza bisitari,
Maitasunaren
Geltoki zaharrak.

14)

Begien kliskada bat
Omen gara,
Unibertsoaren izatean.
Begi zulo beltzetan
Galtzen garenak,
Kliskadaz-kliskada
Mundu berrien bila.
Kliskada bakarra
Aski da
Unibertso berrien sorrerarako,
Kliskada bakarra
Aski da
Guztia desagertzeko...
Kliskadaz-kliskada
Dioakigu bizitza,
Begiradetan
Unibertsoa,
Eta oraindik ere
Zuri begira
Jarraitzen dut.

15)

Irribarreak
Aurkitzen ditugu batzuetan,
Eta ze ederra den,
Galdu orduko,
Berriz itzultzea.

16)

Batak zioen,
Zenbaki bikoitiek,
Ikara ematen ziotela.
Ohartu zen arte,
Zatituta ere
Osoak zirela.

17)

Orduan
Esatera ausartu ez ginen
Hura,
Orain
Onartzean besterik
Ez da gelditzen.

18)

Iraganari dei egin diozu,
Berriren bat bueltatukon zizulakoan,
Eta...berriz...
Oroimenaren erantzungailu
Automatikoak erantzun dizu
Behin eta berriz
Errepikatzen den erantzuna.

Berriz,
Markatzera zindoazen
Iraganeko zenbaki hura,
Ohartu arte,
Iragana dela markatzen
Duena.

19)

Zergatik
sentitzen dudan
galdetu nion
Buruari,
Hark erantzuna
Eman zidan,
Taupaden kontua zela
Beste guztia,
Galderak erantzun ditzazketela
Baina...
Ez dutela erantzunik
Arrazoitzen.

20)

Batzuetan ulertzen dugu,
Gure esku ez dagoena
Oratzen saiatzea
Alperrik dela.

21)

Zuri begira
Galdetu nion bihotzari
Maitasuna zer zen,
Taupaden maiztasunean
Bueltatu zidan
Erantzuna.

22)

Loraldien ostean
Arantzak gelditu
Ohi zaizkigu batzuetan,
Eta
Ikastea besterik ez zaigu
Gelditzen,
Hurrengo loraldian
Arantzen ordeztu
Udaberriaz gogoratzeko.

23)

San Juan gaua
Eta gu,
Eta bai...
Berriz piztuko nukeen
Sua,
Erreko nauela
Jakinda ere.

24)

Hemen jarraitzen duzu,
Orbanik gabeko zauria testigu.
Lekuz aldatu zaitut,
Urrunago,
Sakonago,
Minak iristerik ez duen lekura,
Oroitzapenen bidearen azken gotorlekuan
Utzi zaitut,
Ala ere,
Nahi gabe itzultzen naiz
Errepide horretara,
Berriz itzultzerik ez dugunaren jakitun.

25)

Ez da
Zerk
Bereizten gaituen,
Baizik
Bereizten dugun
Zoriontsu egiten gaituena.

26)

Dantza gaitezen
Musika
Itzali aurretik.

27)

Gorroto dut
Eztarritik gora,
Begietara igo
Eta izurtzen zaidan
Korapiloa.

28)

Bihotza oparitu nuen behin,
Eta gero berriz
Bueltatzeko eskaera egin.
Ez zidan oparitutako
Egoeran bueltatu...
Eta orain...
ez dakit zer egin harekin.

29)

Madarikatzen ditut
Beraien denbora
Hura izan arren,
Nahi baino gutxiago
Irauten duten horiek.

30)

Esaidazu
Zure begietan
zer ikusten duzun,
nireek ikusten dutena
esango dizut,
baian ezin dugu ahortzi,
bi erreflexu baino
ez garela izango
begiraden artean.

31)

Euri tanta batek
Ez du negua egiten,
Ez eta ere eguzki izpi batek
Uda,
Eroritako hosto batek
Ez du udazkena egingo,
Ez eta ere lore batek
Udaberria.

Garaia denean,
Ohartuko gara,
Noiz den
Sentimenduak loratzeko unea,
Zalantzak argitzeko momentua,
Zein,
Malkoak lehortzeko aterpe,
Non askatu korapiloak,
Eta...
Urtaro bat ez dela aski,
Bizitza bat laburbiltzeko.

32)

Lore bat eskaini
Nahi zion maitasunari,
Etxe ondoko larrera abiatu arren
ez zen udaberria,
udaberrian bueltatuko zela
egin zuen sin.

Udaberria bueltan,
Dena lorez josia.
Lore sortaz bete zuen eskua,
Baina hutsi zegoen
Maitasunaren aulkia.
Orduan bere buruari oparitu
Zizkion loreak,
Bere burua maite duen orok,
Aurki dezan udaberria.

33)

Ojala,
Zoriontasuna
Kutsakorra bezain
Kronikoa balitz.

34)

Batzuetan
Dena egoten da
Behar den tokian,
Egon behar dena izan ezik.

35)

4,603 mila miloi urte
Daramatza argi egiten eguzkiak,
Beraz,
Ez gaitezen
Denbora baino lehen
Itzali.

36)

0-tik eraikitzen da 1

37)

Nola,
Bihurritu daiteke
Bide zuzen bat...
Nola bihurtu daiteke
Pausu arrunta,
Amildegia
Arrotz.

38)

Hego haizea kaleetan barna,
Pausuak bidean,
Atzera emango nituzke
Atzera bueltarik balego.

Hego haizea kaleetan barna,
Kaleak hutsik,
Bihotzak hotz,
Semaforoa gorri,
Berde utzi genuen azken aldiz.

39)

Muinotik begira
Zapaldu genituen larreak
Zimeldu ditu denborak,
Lehortu zaizkigu begira
Hodei hertzak.

Muinotik begira
Galtzen dira gailurrak.

Muinotik begira
Galtzen dira galderak,
Erantzun motzen oihartzun.

Muinotik begira
Zoriontasunaren amildegi
Bihurtu zaizkigu
Gailurrak.

40)

Erdu,
Xuxurlatu,
Laztandu,
Gorritu,
Berde jarriko gara.

Jaitsi gaitezen
Kiribilduz azala,
Mamitu ditzagun desirak
Hezurretaraino.

Igo
Zoru labainkorrera,
Iritsiz
Gailurreraino,
Hautsi ditzagun
Zapaiak.

Galdu gaitezen
Arrastoei jarraika...

41)

Zirrara eta lurrikararen
Arteko zerbait
Izan daiteke
Maitasuna.
Gertatu arte
Kosta egiten da ohartzen,
Latitudeen
Magnitudeaz.

42)

Ez da erraz jakiten
Zer dakarren
Gatazka batek,
Baina imajinatu
Dezakegu
Zer daraman...

43)

Ez dakit...
Egokiena den,
Besteen begietan
Dagoen lastoa ikustea
Eta ez,
Atzean dauden
Larreei begiratzea.

44)

Eta...

Ohartzen gara,

Benetan maite

Ditugun gauzak,

Ezin direla eduki,

Maite dugun hori...

Edukia delako.

45)

Ezkata bat galtzeak

Ez du esan nahi

Igeri egitea

Ahaztu zaigunik.

46)

Zeinek

Ez dauka buruan,

Bihotzean

Falta dena.

47)

Galdera ez da
Magia existitzen den ala ez,
Baizik,
Hartan zineteko
Prest gauden.

48)

Sokari
Tiraka egin nahi genion,
Baina
Beste aldean
Ez zegoen inor.

49)

Ze une goxoa,
Zerbait esan nahi
Eta
Horren ordezt
Besarkadak
Ateratzen zaizkigunean.

50)

Esperantza aurkitu nuenean,
Norbaiti
Galdu ote zitzaion
Galdetu nion neure buruari.

51)

Elkarrekin geundean
Esaten genion haiei
Buelbaka..
Itzulpena bat nahi nuen
Ulertu nahirik...
Baina ez ziren egundo itzuli.

52)

Jarrai dezatela
Egunek erretzen,
Barne suak
Piztuta dirauen
Bitartean.

53)

Zein

Ez da galdu noizbait

Ikaretan,

Zeinek

Ez du sentitu noizbait

Amildegia oinen azpian,

Eta jauzi egin!

Hori da bizitza agian,

Eguneroko zalantzetan

Jauzi egitea,

Beldurrak nola erortzen

Diren sentitzea,

Jakitun bihar berriro eraikiko

Direla,

Eta berriz egingo

Dugula salto.

54)

Iragana

Ez da

Gaur garenaren

Itzala besterik.

55)

Askotan

Ez da jakiten

Norarte

Sartzen hanka,

Jaso arte.

56)

Eguzkia murgilduz
Ametsak azaleratzen diren
Une hori,
Begiak itxiz
Bihotza zabaltzen zaizun
Une hori,
Ingurura begiratu eta
Ez dagoela ezer ederragorik
Parte izatea baino
Ohartzen zaren
Une hori.

Une batek
Mila hitzen balioa
Omen du,
Uneak bizitzaren
Euskarri omen dira,
Ilargia
Ametsen argi,
Ametsak taupada,
Eta argitzen gaituzten
Bihotzak,
sekula izkutatzen
ez diren
eguzki.

57)

Maite zaitut
Esatera nindoan.

Haizeak hitzak
Eramango dituen beldurrez,
Zure ezpainetara
Hurbildu natzaizu.

Musukatuz
Elkar ulertu dira
Zureak eta nireak.

Haizeak,
Ez du hitzen
Berririk izan.

58)

Maite ditut
Ametsen sorlekuak...
Edonon eta edonoiz
Sortu daitezke,
Baina ez
Edozeinekin.

59)

...eta

Ez al da garrantzitsuago?

Amestutako lekuan baino,

Amestez duzun tokian izatea?

60)

Gozatu dezagun

Bihotzean eta ondoan

Ditugun bitartean,

Auskalo...

Etzi damu

Agian,

Ez ditugu

Leku bietan izango.

61)

Ze ederra den

Bedin izatea,

Desberdintzen gaituenak.

62)

Askotan

Ez da maite

Edo ez maite,

Nola maite baizik.

63)

Nork

Ez du maite

Magala,

Aurrera egiteko.

64)

Zerbait

Ez doa ondo...

Besteen gaitza,

Norbere onura

Bihurtzen denean.

65)

Azalean bizi
Garen gizarteak
Omen gara,
Askotan ulergaitzak...
Azala ez baitago
Ulertzeko egina.

66)

Norarte
Heldu daiteke
Begirada.
Ikusteko prest
Zaudenean.

67)

Iraganak
Barkatzen baleki,
Agian
Ez ginateke
Itzuliko
Hainbeste aldiz.

68)

Zeinen itogarria kea,
Memoriaren errauts
Bihurtzen denean
Sugarra.

69)

Batzuetan
Bizitzak irakasten du,
Ahaztu beharra
Besterik ez dela
Gelditzen,
Eta
Gelditzen dena
Ahaztezina dela.

70)

Hariari tiraka,
Zalantzetan josi ohi gara.
Erantzun askatzaileen bat
Ekarri dezakeen
Norabidearen bila
Aritu ordeztu...
Noraezean
Korapilatzen diren
Muturren antzera.

71)

Beti bueltatu
Nahi izaten omen da
Zoriontsu izan garen tokira,
Denborak abolituko du ordea
Bueltatzeko bidea,
Ulertzer a eramanez
Zoriontasuna ez dela
Leku batean gordetzen,
Gugan daramagula,
Momentuak direla,
Eta bueltatzea
Desioko dugun
Gune berriak
Sortuko zaizkigula.

72)

Iragan Madarikatua!

Neure buruari
Galdetu diot,
Berriz!
Zergatik jarraitzen dudan
Sentitzen,
Nagoen lekua
Iada ez bada existitzen.

73)

...eta

Zenbat ezango genukeen!

Momentua balitz...

74)

Badago leku bat

Dena dena posible.

Iragana aldatzea,

Oraina moldatzea,

Etorkizuna eraikitzea,

Dena dena perfektua.

Jainko moduko zerbait

Sentiarazten zaituen hori...

Baina,

Han ez da bizitzarik

Ez

Bizitzerik,

Denborak kontsumitzen gaitu.

Tamalez,

Polita bezain arriskutsua

Da

Barne mundua.

75)

...eta

Ez al da edarragoa...

Hitz handiekin

Ahoa bete baino

Bihotza betetzea

Ekintza txikiekin.

76)

Benetako altxorrak

Ezin direlako gorde,

Bizi gaitezen

Garena

Ezkutatu gabe.

77)

...eta

Iratzargailuak

Ez diezagula

Ametsen

Haria eten.

78)

Maitasunari
Dei egin behar
Badiozu,
Eskegi...
Hori ez da zenbakia.

79)

...eta kabiak
Eraikiko nituzke
Ostadarraren magalean,
Txori migrariok
Babes har dezagun
Egun goibeletan.

80)

...eta ojala mapek
Mugen ordeztu,
Zubiak balituzte.

81)

Gauero azaltzen
Omen dira izarrak,
Baina...
Alferrik egingo dute argi,
Begiratzeko gai
Ez bagara.

82)

Argia bezain beste
Itzal daude
Munduan,
Argi ibili gaitezen
Ez baidakigu
Noiz bihurtuko
Garen itzal.

83)

Bagaude
Amestea desio dugunak,
Eta badaude
Ametsak noiz eroriko
Zain daudenak...
Izan bitez zoriontsu
Amets hautsiekin,
Gu
Zoriontsuak gara
Amets berriekin.

84)

Zeinen joera bitxia
Gizarte honena,
Erantzun gabeko
Galderak gelditzen
Zaizkigu
Eta
Galdetu gabeko erantzunak
Ematen dizkigu.

85)

Batzuetan

Ezagunegi

Bihurtzen zaizkigu

Gauza arrotzak.

86)

Azaleko zauriek

Odola isurtzen dute,

Sakonek aldiz,

Ur tanta gaziak...

Eta

Ez dago zauri

Arinik

Sufritzen dabilenarentzat.

87)

Ñabardura

Batetik

Mundu bat egiteko

Gai bagara,

Imaginatuz

Mundu batekin

Zer sortzeko

Gai garen.

88)

Batzuetan
Ekintzak berak
Baino
Min gehiago
Egiten du
Ondorengo jarrerak.

89)

Urtaroz osatzen
Badira
Gure bizitzak,
Udaberria usaindu
Dezagun
Gure baitan,
Loraldiz jantzi
Begiradak,
Eta erleen antzera
Eztitu ditzagun
Egun diren
Lore-hostoak.

90)

...eta batzuetan
Ahazten zaigu,
Patrikako teknologiak
Egunero emandako
Pausoak zenbatzea
Baino,
Garrantzitsuago dela,
Emandako
pauso bakoitzak
gure bizitzetan
kontatzea.